

Merkataldegi handien eraentza eta Europar Batasunaren ustea euskal zerga-laguntzei buruz

(The regulation of large commercial establishments and the European Union's considerations on Basque Fiscal Assistance)

SAGASTI AURREKOETXEA, Josu J.

Merkataritza Zuzenbidean doktorea
Euskal Herriko Unibertsitatea
Agirre Lehendakariaren etorbidea, 83
48015 Bilbo
dmpsaaaj@bs.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2001), 8; 127-134]

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak, bere Autonomia Estatutuaren 10.27. artikuluan ezarritako konpetentziaren arabera, Merkataritza Jarduera arautzen duen 7/1994 Legea garatu du, eta bertako 13. artikulua idazketa eta edukia aldatu ditu, merkataldegi handien eraentza osatuz eta finkatuz. Bestalde, Europar Batasuneko Batzordeak oharpenak aurkezteko epealdia zabaldu du, Lurralde Historikoek berriki sorturiko zenbait enpresei Elkarteen gaineko Zergaren salbuespen formapean emandako zerga-laguntzeen eraentzei buruz. Batzordearen iritzian, halako estatu-laguntza neurriak ezin direnez de minimis gisa sailkatu, aldeaz aurretik jakinarazi behar ziren. Era berean, zalantzak ditu halako zerga-laguntzek Merkatu Batuarekiko duten bateragarritasunari buruz.

Za Comunidad Autónoma del País Vasco procede a desarrollar la Ley 7/1994, reguladora de la Actividad Comercial, y así, modifica la redacción del artículo 13 de la citada Ley, fijando el régimen de los grandes establecimientos comerciales. Por otra parte, la Comisión Europea ha abierto un período para presentar observaciones sobre los regímenes de ayudas fiscales que, en forma de exención del Impuesto sobre Sociedades para determinadas empresas recientemente creadas, fueron establecidos por los Territorios Históricos. A este respecto, la Comisión considera que, dado que las citadas medidas no pueden calificarse como de minimis, deberían haber sido objeto de notificación previa. Del mismo modo, plantea sus dudas respecto de la compatibilidad de tales ayudas fiscales con la normativa europea.

Za Communauté Autonome du Pays Basque procède au développement de la Loi 7/1994, régulatrice de l'Activité Commerciale et, de cette façon, modifie la rédaction de l'article 13 de cette Loi, en fixant le régime des grands établissements commerciaux. D'autre part, la Commission Européenne a ouvert une période pour présenter des observations sur les régimes d'aides fiscales qui furent établies pour les Territoires Historiques, sous forme d'exonération de l'Impôt sur les Sociétés pour déterminer des entreprises récemment créées. A ce sujet, la Commission considère que, étant donné que ces mesures ne peuvent être qualifiées de minimales, elles auraient dû être l'objet de notification préalable. Elle présente également ses doutes en ce qui concerne la compatibilité de ces aides fiscales avec la réglementation européenne.



1. Merkataritza Jardueraren Legea

7/2000 Legeak, azaroaren 10ekoak¹, **Merkataritza Jardueraren 7/1994 Legea**, maiatzaren 27koa², aldarazi du, Lege honen 13. artikuluari idazketa berria emanik eta Legen honen *Bigarren Xedapen Iragaitza* eta **5/1998 Dekretua**, urtarrilaren 20koa, indargabetuz (*Xedapen Indargabetzaile Bakarra*).

Lege berriaren *Karrien Adierazpenak*, aurreko Legea merkataritza-esparruko joerak hedatu eta modernoak bihurtzeko baliagarria izan dela onartzen du, baina, era berean, erroka berri bati erantzuna ematea ere beharrezkotzat jotzen du. Hau, gaia beste ikuspegi batetik legegintzaren bitartez arautzea izango litzateke. Aipaturiko ikuspegia, besteak beste, hurrengo honetan datza, hau da, dagoeneko merkataritza-ekipamendu maila egokia duen gizartearen eta bere geroko garapena, beharrezko lurralde-orekari eraso egin gabe eta gaur egungo merkataritza-egiturari kalte egin gabe, burutuko dela bermatu beharko duen egoeran.

Beraz, halako ikuspegitik arauketari ekinez, ezarrera berriak bi egiteetara baldintzatzen dira; alde batetik, kontsumitzaileen balizko eskariaren betetzera eta, bestetik, gainera, banapen-kanal zehatzaren tipologiara, zeinaren bitartez merkaturaren eskaintza eta eskaria elkarren artean biltzen baitiren.

Era berean, merkaturaren ahalik eta gardentasun handiena bilatzen da. Hau lortu ahal izateko, haren agenteei zenbait komunikazio-obligazio ezartzen zaizkie, botere publikoek barne merkataritza gaian dituzten konpetentziak erabat betetzea ahalbideratu beharko dutenak.

Azkenik, *Karrien Adierazpen* esparruan, **30/1992 Legeak** eskatzen duen bezala, **4/1999 Legeak** emandako idazketaren arabera, merkataldegi handi lizentziaren eskari erabideei buruzko erabakikuntzak ezarri eta jakinarazteko epearen iragaketaren ezespen eraginari lege-maila ematen zaio.

Bestalde, Lege berriaren artikuluduntzari dagokionez, Legea *artikulu bakarrik* osotzen du, zeinak **Merkataritza Jardueraren 7/1994 Legearen 13. artikuluari** idazketa berria ematen baition.

Merkataritza Jardueraren 7/1994 Legearen 13. artikulua zuen izenburua edo izeneztapena hurrengo hau zen, hau da, "Merkataldegien ezarrera". Lege berriak artikulu honi idazketa

berria ematen dionean, bestalde, ez du izenburu edo izeneztapenik adierazten; beraz, erreformari, lehenik eta behin, kritika hau egin beharko litzaiokete, aurreko Legearekiko legegintza-teknika errespetatzen ez duelako. Are gehiago, 13. *artikuluko* aurreko edukia eta eduki berria batera ez etortzeari erabateko segurtasun juridiko eza dario, aurrekoa merkataldegiei, orokorrean, dagokielako eta berria, aldiz, gehienbat, merkataldegi handiei. Horregatik, beharrezkoa izango litzateke artikulu berriak ere izenburua izatea; alde batetik, gainerako artikuluduntzarekin legegintza-teknika gordetzeko eta, bestetik, bere edukiaren gaia zein den ezagutu ahal izateko.

Artikulu berriaren 1. paragrafoko lehenengo lerroaldeak merkataritza-lizentziaren beharra ezartzen du, merkataldegi handiak ezarri edo hedatzeko, bai eta beren jarduera aldarazteko ere. Aipaturiko lizentziaren ematea merkataritza esparruan gaia den Eusko Jaurlaritzako Sailari dagokio. Era berean, lizentzia hau ezinbestekoa da eta, gainera, udalek berauei dagozkien udal-lizentziak eman aurretik lortu beharko da. Azken aipamen hau **Merkataritza Jardueraren 7/1994 Legearen 12. artikulua**rekin lotu behar da, zeinean irekitzeko lizentziak arautzen baitiren, hauek emateko konpetentzia udalei ezagutuz. Beraz, artikulu berriak udal-lizentziak aipatzen dituenean, hauek irekitzeko lizentziak ez beste dira. Ondorioz, arautegi berriaren salbuespenezko erregimena ezartzen zaie merkataldegi handiei, merkataritza-lizentziak nahi eta nahi ez alde aurretik eskatuz.

Halaber, merkataldegiaren titulartasunean bai eta jardueraren ustiapenaren titulartasunean ere aldaketa bihurtuko litzatekeen kasuetan,

“ **Legeak merkataritza-lizentziaren beharra ezartzen du, merkataldegi handiak ezarri edo hedatzeko, bai eta beren jarduera aldarazteko ere** ”

1. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 149 zk., 2001eko urtarrilaren 5koa. Lege hau 58/2001 Dekretuak, martxoaren 27koa, Merkataritzagune Handiak Ezarri, Aldatu eta Handitzeakoak, garatu du. (EHAA, 63zk., 2001eko martxoaren 30koa).

2. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 111 zk., 1994ko ekainaren 13koa.

merkataritza-lizentzia eskatu beharko da, eskuratzailerik hurrengo *3. paragrafoan* ezarritako ezaugarrietariko bat lukeenean eta eskualdatzear legokeen merkataldegiak dagoeneko merkataldegi handiaren lizentzia ez lukeenean (*1. paragrafoko bigarren leerroaldean*).

Lege berriak, bestalde, erregelamendu mailako araura bidaltzen du gutxiak merkataritzara bideraturiko merkataldegiek merkataldegi handi gisa hartuak izateko bete beharko dituzten baldintzen ezarrera. Halako baldintzen ezartzean, besteak beste, merkataldegiek jendearekiko luketen salmenta esparrua eta beraiek kokatzen diren edo kokatuko liratekeen udal dermioaren biztanleria kontuan hartuko dira (*2. paragrafoko lehen leerroaldean*).

Aurreko ezaugarriak ezarri ondoren, artikuluko berriak merkataldegi handitzat zer ulertu beharko den eta zer ez adierazten du. Berritua ere, lehenago egindako legegintza-teknika kritika egin beharko litzateke. Sistematika eta legegintza-teknika kontuan izanik, artikuluko berriak lehen paragrafoan ezarri beharko zituzkeen merkataldegi handiaren kontzeptua edo esangura, bai eta zein kasutan merkataldegi bat halakotzat hartuko ez den ere. Irizpide honen kontra, artikuluko berriak, merkataldegi handiaren lizentzia betebeharrak ezartzen dira, halako erakundea zer den azaldu aurretik. Zehazpen hau, aldiz, *artikuluko 2. paragrafoko bigarren leerroaldetik* aurrera egiten da.

Zentzu honetan ere, legegintza-teknikarekiko beste kritika berri bat egin behar da. Honela, merkataldegi handiaren esangura zein den aipatu aurretik, ezezko irizpidea erabiltzen da merkataldegi handitzat zer hartuko ez den adierazteko. Hau da, ohiko legegintza-teknikan, lehenik baiezko irizpidea erabiltzen da kontzeptua zehazteko eta, ondoren, ezezko egoerak edo kasuak adierazten dira; hemen, aldiz, kontzeptua zer den jakin aurretik, tipologia honetan barnebiltzen ez den kasuetariko bat aipatzen da. Egoera hau, jendearekiko luketen salmenta esparrua lauhun metro karratu baino txikiagoa luketen merkataldegiek osotzen dute. Hauek ez dira merkataldegi handi gisa hartuko eta, beraz, ez dira merkataritza-lizentziara loturik geratuko (*2. paragrafoko bigarren leerroaldean*).

Hirugarren paragrafoan, bestalde, merkataldegi handitzat hartuko diren kasuak ezartzen dira. Honela, nolahi ere, halakoak izango dira gutxiak merkatalguneak, baldin eta jendearekiko luketen salmenta esparrua lauhun metro karratukoa edo handiagoa balitz eta hurrengo ezaugarrietariko baten bat beteko luketen pertsona edo erakundeei balezokizkie: a) 250 langile baino gehiago enplegatutik izan; b) urteko negozio-bolumena 6.655.440.000 pezeta (40 milioi euro) baino handiagoa edo balantze orokorra 4.492.422.000 pezeta (27 milioi euro)

baino handiagoa izan; c) aurreko betebeharrak betetzen dituzten beste batzuek halako pertsona edo erakundeen kapital edo boto eskubideetan ehuneko 25eko edo gehiagoko partaidetza izan. Aipaturiko partaidetza luketen erakundeetatik Partaidetzazko Elkarte Publikoak, Arrisku-kapitaleko Elkarteak edo erakunde-inbertitzaileak salbuesirik geratuko dira, hauek enpresari buruz inolako kontrolik jardungo ez luketen neurrian, ez bakarka ez elkarrekin batera.

Baiezko irizpidea erabili ondoren, berritua ere ezezkoa berreskuratzen da, merkataldegi handi kontzeptutik beste erakunde batzuk salbuesteko. Oraingo kasuan, aldiz, aurrekoan ez bezala (*2. paragrafoko bigarren leerroaldean*), ezezko irizpidea Legean ezarritako eraginetara mugatzen da. Hau kontuan harturik, ez da ulertzen zein izan daitekeen horrela bereizketa egiteko zergatia. Beraz, aipaturiko egoeratik hurrengo hau ondoriozta daiteke, hau da, *2. paragrafoko bigarren leerroaldean* ezarritako egoeran dauden halako merkataldegiak –jendearekiko luketen salmenta esparrua lauhun metro karratu baino txikiagoa luketen merkataldegiak– “inoiz ere” merkataldegi handitzat hartuko ez diren neurrian, *4. paragrafoko lehen leerroaldean* leudekeenak ez direla “Lege berezi honen eraginetara” merkataldegi handitzat hartuko. Beraz, halako izaera edo ezaugarria “beste eragin batzuetara” izan dezaketela dirudi. Egoera honetan erregaien salmenta eta igorpenera bideraturiko merkataldegiak leudeke.

Aurreko leerroaldean ezarritakoa hala ere, *paragrafo bereko bigarren leerroaldean*, berritua ere, ezezko irizpidearen izaera edo ezaugarria aldatzen da, inolako salbuespenik onartu gabe. Honela, aipaturiko *bigarren leerroaldean* ezartzen diren egoerak ez dute onartzen, inolaz ere, halako mailan leudekeen merkataldegiek merkataldegi handi esangura hartzerik. Beraz, erabateko ezezko irizpidea ezartzen da. Legegintza-sistematika eza honek beste kritika sakon eta gogorrago bat merezi du, kontuan izanik leerroalde “halaber” hitzarekin hasten dela. Zentzu honetan, ezinezkoa da maila ezberdineko ezezko irizpideak berdinkidetzea, bata, “Legearen eraginetara mugaturik” –halako Legetik kanpo merkataldegi handi izaera ezagutuz– eta, bestea, inolako mugarik gabekoa eta, ondorioz, kasu guztietarako balioa izango duena.

Aipaturiko halako egoeran automobil ibilgailuen salmentara bideraturiko merkataldegiak daude, jendearekiko luketen beren salmenta esparru beharrak kontuan harturik. Zergati bereberan oinarrituz, etxea hornitzeko gaien salmentara bideraturiko merkataldegiak hurrengo kasu honetan baino ez dira merkataldegi handi gisa hartuko, hau da, aurreko *3. paragrafoan* ezarritako betebeharretariko baten bat luketenean (*4. paragrafoko bigarren leerroaldean*).

Bestalde, merkataritza-lizentziari dagokionez, beharrezkoa bihurtzen da, berriro ere, legegintza-sistematika ezari buruzko kritika egitea. Honela, *artikuluko lehenengo paragrafoan* halako lizentziaren beharra, bera emateko gaitasuna eta bera lortu edo izan behar diren kasuak ezarri ondoren, bere erregimena ez da *bosgarren paragrafoa* arte berreskuratzen. Honetan, merkataldegi handiaren lizentzia eman edo ukatzeko erabakia hartzerakoan bereziki neurtuko diren ezaugarriak adierazten dira. Hauek, besteak beste, hurrengoak dira: alde batetik, merkataldegi berriak eragina izango duen lurralde-esparruan merkataritza-hornikuntza egokirik dagoen ala ez, eta, bestetik, merkataldegi berriak, alde aurretik besterik egotekotan, haren merkataritza-egituraren gainean jardun litzakeen eraginak. Hirugarrenik, halako ezaugarrien artean eta, era bereziagoan, merkataldegi berriak alde aurretik dagoen merkataritza txikiaren gainean sor litzakeen eragimen negatiboa ere neurtzen da (*bosgarren paragrafoko lehen leerroaldea*).

Aurreko ezaugarriak ezarri hala ere, hauek ez dute arautegia erabat finkatzen, legearen osaera erregelamendu mailako araura bidaltzen baita. Horrela, erregelamenduaren bitartez lurralde-esparrua ezarriko da, zeina jendearekiko salmenta esparru gorena merkataldegi handiaren bidez berari esleitzeko kontuan hartuko baiten. Halako esleipena, tipologiaz tipologia eta sektorez sektore, legokion lurralde-esparruko balizko eskarian partaidetzazko portzentaje zehatzetan zehaztuko da (*bosgarren paragrafoko bigarren leerroaldea*).

Artikulu berriak, merkatuaren gardentasuna ahalik eta nagusia izateko, merkataldegi handiari buruzko eskualdaketa kasu edo mota ezberdinak arautzen ditu, jakinarazpen betebeharra ezarriz. Zentzu honetan, merkataldegi handiren bat edo bere ustiapenerako titulu juridikoak, bai eta zuzenki edo zeharka haren titularak diren Elkartearen akzioak edo partaidetzak ere eskuz aldatuko liratekeen kasuetan edo, **Merkataritza Kodeko 42. artikuluan** arabera, kontuak sendartzeko obligazioa legokeenean, eskuratzailak, 40 eguneko epean, eskualdaketa datatik zenbaturik, halako egoera edo egitea merkataritza esparruan gaia litzatekeen Eusko Jaurlaritzako Sailari jakinarazi beharko dio. Frankia erregimenean ustiatutako gutxiak merkatalguneen ezarrera, hedakuntza eta beren jardueren aldarazketa kasuetan, obligazio bera bete beharko da, baldin eta frankiatzailea merkataldegi handi lizentziaren baten titularra balitz edo hark aurreko 3. *paragrafoan* ezarritako betebeharretariko baten bat beteko balu (*seigarren paragrafoa*).

Zazpigarren paragrafoak, berriro ere, legegintza-sistematikari eraso egiten dio.

Paragrafo hau, besteak beste, *lehenengo paragrafo* eta *bosgarren paragrafoarekin* lotu beharko litzateke, haien osagarria baita. Honela, *lehenengo paragrafoan* merkataritza-lizentziaren beharra, bera emateko gaitasuna, bere ezaugarriak eta bera eskatu behar diren kasuak ezartzen diren neurrian, eta *bosgarren paragrafoan*, lizentziaren emate edo ukapen erabakia eta hau hartzeko neurtzen diren betebeharrak edo ezaugarriak, aldiz, prozedura eta honen berezitasunak ez dira aipaturiko *zazpigarren paragrafoa* arte arautzen. Paragrafo honetan, **Administrazio Publiko eta Ohiko Administrazio Prozeduraren Erregimen Juridikoaren 30/1992 Legearen 43. artikuluan** eraginetara, erabakikuntza eman eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango dela adierazten da. Epealdi hau iragan ondoren, interesdunak, bere merkataldegi handiaren lizentzia-eskaria administrazio-isiltasunez ezeztatutik ulertu beharko du. Era berean, merkataldegi handi lizentzien emate erabidean, konkurrentzia defentsioaren kontrola eta bermetasuna esleiturik lukeen organoari txostena eskatuko zaio. Azkenik, *zortzigarren paragrafoak*, ezarrera, hedatze edo jarduera aldaketa lizentzien emate kasuetan tasa berri bat, halako kontzeptuetan oinarriturik, ordaindu beharko dela adierazten du.

Bestalde, *artikulu* berria era ezberdinetakoa xedapenekin osotzen da. Honela, lehenik eta behin, Xedapen Gehigarriak aztertu beharko lirateke. Hauen esparruan, *Lehenak zortzigarren paragrafoan* ezarritako tasa berria sortzen du. Beraz, halako paragrafoan adierazitakoaren arabera, merkataldegi handiekiko baimena emateagatik ordaindu beharreko tasa sortzen da, zeina **Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoen, maiatzaren 29ko, 13/1998 Legean** sartzen baiten. Tasa honek atal eta artikulu berrien gehitzen dizkio aipaturiko Legeari. Honela, hurrengo atal hau sortzen da, hau da, "II. Atala: (10.02) Tasa, merkataldegi handiekiko baimena emateagatik". Era berean, *176. Bis*, *176. Ter*, *176. Quater* eta *176. Quinquies* artikulu berriak ere sortzen dira.

176. Bis artikulua *zerga*³ arautzen du. Honela, halako kontzeptua hurrengo hau izango da, hau da, alde baten ekimenera, merkataldegi handiak ezarri edo hedatzeko, bai eta beren jarduera aldarazteko ere, biderakuntza eta baimen emate zerbitzuen egitea. Bestalde, *176. Ter* artikulua *subjektu pasiboak* zehazten ditu. Hauek, zerga osotzen duten zerbitzuen hartzaileak diren pertsona fisiko edo juridikoak izango dira. Halaber, *176. Quater* artikulua tasaren *sorrera*⁴ arautzen du. Zentzu honetan, tasa, zerga osotzen duten administrazio-

3. Zerga: Hecho imponible.

4. Sorre: Devengo.

jokaeren burutzapen uean sortuko⁵ da. Hala ere, haren ordainketa eskaria eratzten den uean eskatu ahal izango da. Azkenik, 176. *Quinquies artikulua* kuota arautzen du, bi kasu ezberdin bereiztuz; lehenengoaren arabera, ezarri edo hedatu nahi izan daitekeen salmenta esparruaren metro karratu bakoitzeko kuota 500 pezeta edo 3,01 euro izango dira (*lehen paragrafoa*); bigarrenaren arabera, eskaeraren karia jarduera aldaketan oinarrituko litzatekeenean, lehendik legokeen salmenta esparruaren metro karratu bakoitzeko kuota 250 pezeta edo 1,50 euro izango lirateke (*bigarren paragrafoa*).

Era berean, *Bigarren Xedapen Gehigarriak* merkataldegi handiekiko erregimena garatzeko gainerako ahalmenak edo irizpideak ere kontuan hartzen ditu. Honela, Euskal Autonomia Erkidegoak barne merkataritza esparruan dituen kompetentzien jardutean, Eusko Jaurlaritzak, euskal merkataritza-sektoreko agenteei alde aurretik kontsulta eginez, Lege honen gai diren merkataldegi handiei dagozkien merkataritza-tokiak ireki eta ixteko ordutegien antolaketa buruz arauak ezarri ahal izango ditu, konkurrentzia libre eta leialaren arabera eta indarrean dauden mugapen orokorren barrutian. Aipaturiko arauak ordutegi osoaren gehieneko mugapenen finkapena barnebilduko dute, beharrezko lurralde-oreka eta gaur egun dauden merkataritza-egituren garapena bermatuz.

Halaber, arautegi berriak ez du ahazten erregimen iragaitza. Zentzu honetan, *Xedapen Iragaitz Bakarrak*, lehenik eta behin, Lege berria indarrean sartu baino lehenago hasi ziratekeen prozedurak arautzen ditu. Hauek, beren behin betiko erabakikuntzara arte, beren hasiera uean indarrean zegokeen arautegian ezarritakoaren

arabera bideratzen iraungo dute (*lehen paragrafoa*). Bigarrenik, **Merkataritza Jardueraren 7/1994 Legearen 13. artikuluko 2. eta 5. paragrafoetan**, Lege berriak emandako idazketan, ezarritakoa erregelamenduaren bidez garatzen ez den neurrian, jendearekiko luketen salmenta esparrua 400 metro karratuko edo handiagoa luketen merkataldegiak ezin izango dira ezarri, ez eta beren jarduera aldarazi ere, eta, **13. artikuluko 4. paragrafoan** aipaturiko merkataldegiak salbu, jadanik dauden merkataldegiak ezin izango dira hedatu, baldin eta hedakuntzarekin aipaturiko hedapena gaudituko balute (*bigarren paragrafoa*).

Azkenik, Eusko Jaurlaritza, Lege hau indarrean sartzten den datatik⁶ hiru hilabeteko epean, **7/1994 Legearen 13. artikuluko 2. eta 5. paragrafoen** erregelamenduzko garapenez arituko da, Lege berriak hauei emandako idazketaren arabera.

2. Europar Batasuneko Batzordearen agiri eta irizpideak Euskal Autonomia Erkidegoan enpresak sortzeko estatu-laguntzei buruz

Europar Batasuneko Batzordeak, **Europar Erkidegoko Hitzarmen Eratzailearen 88. artikuluko 2. paragrafoa** aplikatuz, arau honek ezartzen duen erabideari hasiera emateko bere erabakia adierazi eta, beraz, oharpenak aurkezteko gonbidapena egiten du, horrela jakinaraziz espainiar agintariei, 2000ko azaroaren 28ko eskutitzaren bitartez. Aipaturiko oharpenak Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Probintziek⁷

5. Sor(tu): Devengar.

6. Lege hau 2001eko urtarrilaren 1ean sartu da indarrean (*Bigarren Azken Xedapena*).

7. **Arabako Lurralde Historikoa:** 18/1993 Foru-Araua, uztailaren 5ekoa, Inbertsioaren aldeko eta Ekonomia Jardueraren Bultzadarako Premiazko Zerga-neurriena; bereziki, *14. artikulua*.

Bizkaiko Lurralde Historikoa: 5/1993 Foru-Araua, ekainaren 24koa, Inbertsioaren aldeko eta Ekonomia Jardueraren Bultzadarako Premiazko Zerga-neurriena; bereziki, *14. artikulua*.

Gipuzkoako Lurralde Historikoa: 11/1993 Foru-Araua, ekainaren 26koa, Inbertsioaren aldeko eta Ekonomia Jardueraren Bultzadarako Premiazko Zerga-neurriena; bereziki, *14. artikulua*.

Halako *14. artikuluen* testua hurrengo da:

"1.- Elkarteen gaineko Zergatik salbuetsirik egongo dira 10 zerga-ekitaldien epean, eratu ziratekeen ekitalditik zenbaturik, hau barne, Foru-Arau hau indarrean sartu eta 1994ko abenduaren 31 bitartean sortuko liratekeen Elkarreak, baldin eta hurrengo paragrafoan ezarritako betebeharrak beteko balira.

2.- Artikulu honetan aurreikusitako salbuespenaz baliatu ahal izateko betebeharrak hurrengoak izango dira:

a) Erabat ordaindurik dagoen 20 milioi pezetako gutxieneko kapitalaz eratzea.

b) Elkarrean eratze data eta 1995eko abenduaren 31 bitartean, gutxienez 80 milioi pezetako inbertsioak burutzea, halako inbertsio guztiak errentan eman edo hirugarrenen alde, beraien erabilera, lagatuko ez diren eta jarduerara loturik geratuko diren ondasunetan egin beharrik.

c) Beren eraketaren ondoko sei hilabeteko esparruan, gutxienez 10 lanpostuen sortzea ondorio gisa izatea eta salbuespenaren epealdian lantaldearen urteko batez bestekoa kopuru horretan mantentzea.

[...]

i) Gutxienez bost urteko epealdia barnebilduko lukeen enpresal-jokaera plana izatea [...].

3.- [...].

4.- [...].

5.- [...].

6.- Artikulu honetan ezarritakoa bateraezina izango da beste edozein zerga-onurarekin.

7.- Iragaitzako salbuespen erregimena Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzak Sailari eskatuko zaio, zeinak, hasiera batean eskatutako betebeharren betetzea egiaztatu ondoren, Elkarrean eskatzaileari jakinaraziko baition, bere kasuan, behin-behineko baimena, zeina Diputatuen Kontseiluko Akordioaren bitartez hartu beharko baiten [...]."

berriki sorturiko zenbait enpresei Elkarteen gainera Zergaren salbuespen formapean emandako zerga-laguntzei buruzkoak dira. Alde interesdunek hilabeteko epean, Batzordeak ezarritako laburpena eta eskutitza argitaratzen diren datatik⁸ zenbaturik hasirik, aurkeztu ahal izango dituzte beren oharpenak, Europar Batzordeko Konkurrentziaren Zuzendaritza Orokorreara bidaliz. Era berean, oharpenak aurkeztuko lituzkeen alde interesdunak, idatziz, eskaeraren kariak azalduz, bere nortasuna konfidentzialki erabiltzea eskatu ahal izango du. Halako moduan egindako oharpenak espainiar agintariei jakinaraziko zaizkie.

Europar Batzordeak, lehenik eta behin, estatu-laguntzen *laburpena* egiten du. Honela, besteak beste, halako laguntzen "helburua" enpresa berrien sorrera eta abiarazpena piztea dela adierazten da. Bestalde, laguntzen "onuradunak", 20 milioi pezeta (120.202 euro) baino gehiagoko ordainduriko kapitala izan, 80 milioi pezeta (480.810 euro) baino gehiago inbertitu eta 10 enplegu baino gehiago sortuko lituzketen elkarte berriak izango dira. "Aurrekontuari" dagokionez, hau ezezaguna da. Laguntzen "intentsitatea edo kopurua" eta "forma" eta "iraupena" hurrengo hau izango da, hau da, Elkarteen gainera Zergaren salbuespena elkarren segidako hamar zerga-ekitaldietan; beraz, 1994ko bukaerara arte.

Bigarrenik, estatu-laguntzen *ebaluaketaz* aritzen da Europar Batzordea. Esparru honetan, **Europar Erkidegoko Hitzarmenaren 87. artikuluko 1. paragrafoaren** arabera "estatu-laguntza izaera" aztertzen da, alde zuzena kontsideroa eginik. Batzordeak neurria hiru probintzietan ia berdina dela nabariarazten du, bai eta, estatu-laguntzen eremuko europar arauak aplikatu ahal izateko, halako neurrien zerga-izaerak ez duela axola ere, **87. artikulua** "edozein formapeko" laguntza neurriei aplikatzen baitzaie.

Bestalde, neurriaren edukia den Elkarteen gainera Zergaren salbuespenak **Europar Erkidegoko Hitzarmenaren 87. artikulua** ezarritako lau irizpideak betetzen ditu. Honela, Elkarteen gainera Zergaren salbuespenak beronen onuradunei abantaila bat ematen die, zeinak, zerga-kuotaren salbuespenaren bitartez, beren aurrekontua normalki zergapetzen duten zamak gutxitzen baititu. Era berean, halako salbuespenak zerga-sarreraren galtzea du ondorio gisa eta, beraz, zerga-gastu formapean egindako baliabide publikoen kontsumoaren baliokidea da. Halaber, Batzordeak, aipaturiko salbuespenak konkurrentzia eta Estatu kideen arteko

“ Estatu-laguntzen “helburua” enpresa berrien sorrera eta abiarazpena piztea dela adierazten da. Bestalde, laguntzen “onuradunak”, 20 milioi pezeta baino gehiagoko ordainduriko kapitala izan, 80 milioi pezeta baino gehiago inbertitu eta 10 enplegu baino gehiago sortuko lituzketen elkarte berriak izango dira



merkataritza-elkartrukeei eragiten diela uste du. Benetan, onuradunek, Estatu kideen artean elkartrukatu daitezkeen ekonomia jarduerak burutzen dituztenez, laguntzak enpresa onuradunen egoera, berauek erkidego-barneko merkataritzan gainerako beste enpresa lehiakideekiko luketena, berrindartu egiten du, ondorioz halako merkataritzan eragipena izanik. Gainera, enpresa onuradunen errentagarritasuna hobetu egiten du, beren emaitza garbia (etekinak zergen ondoren) gehitzen baita. Modu berean, salbuespen hau zehatza edo hautakorra da, zenbait enpresen alde egiten baitu. Halaber, Batzordearen ustetan, zerga-laguntza hauek ez dute beren justifikazioa sistemaren izate edo ekonomian, baizik eta enpresa berrien sorrera eta abiarazpena piztu edo bizkortzeko jarraitutako helburuan.

Esparru honetan ere, Europar Batzordeak, **Europar Erkidegoko Hitzarmenaren 88. artikuluko 3. paragrafoaren** arabera "jakinarazpen obligazioaren" ezbetetzei buruzko

8. Europar Erkidegoetako Egunkari Ofiziala (EEEO), C-37 zk., 2001eko otsailaren 3koa.

SAGASTI, J. J. Merkataldegi handien eraentza eta Europar Batasunaren ustea euskal zerga-laguntzei buruz. *Eleria*, 8, 2001, 127-134



analisi egiten du. Horrela, bere iritzia hurrengo honetan datza, hau da, halako estatu-laguntza neurriak *de minimis* gisa sailkatu ezin direnez, haiek, aipaturiko arauaren arabera, alde zurreratik jakinarazi behar ziratekeen. Beraz, eta ondorioz, espainiar agintariek halako obligazioa errespetatu ez dutenez gero, halako laguntzak ezlegezkoztat har daitezke.

Eremu berean jarraituz, "Elkarteen gaineko Zergaren salbuespenaren bateragarritasuna" ebaluatzen da. Horretarako, *lehenik*, "sektorezko eragimenak" aztertzen dira. Hauei dagokienez, Europar Batzordeak Elkarten gaineko Zergaren halako salbuespena ez dagoela sektoreka mugaturik adierazten du eta, beraz, zenbait kasu eta jardueri aplikagarriak zaizkien arauen bezalako sektorezko erkidego-arauetara loturiko enpresei eman dakiekeela. Aipaturiko kasu eta jarduerak hurrengo hauek dira, hau da, Hitzarmeneko I. Eranskineko nekazal-ekoizkinen ekoizpen, eraldaketa eta merkaturaketa jarduerak; arrantza; ikatz-industria; siderurgia; garraioa; untzigintza; zuntz sintetikoak eta automobil industria. Hala ere, salbuespena ezartzen duten Probintzietako "legeek" ez dute aipaturiko erkidego-arau berezien errespetua aurreikusten. Beraz, ezarritako guztiak hurrengo ahartarazten du, hau da, Elkarten gaineko Zergaren formapeko zerga-laguntzek aipaturiko sektorezko arauak ez errespetatzea gerta litekeela. Ondorioz, halako laguntzen bateragarritasunari buruz zalantzak daude, onuraduna erkidego-arau berezietara loturiko sektorekoa litzatekeenean.

Bigarrenik, aipaturiko eremuan, "herrialde-arauak" aztertzen dira. Gai honetan, Batzordeak, **Herrialde-helburua duten Estatu-laguntzei buruzko Jokabideen**⁹ 4.15 eta 4.17 zenbakietan ezartzen den galerazpena nabariarazten du. Arau hauen arabera, funtzionamendu laguntzak, printzipioz, galarazita daude. Hala ere, hauek, **Europar Erkidegoko Hitzarmenaren 87. artikuluko 3. paragrafoa a) letrako** indargabetzeaz onura ateratzen duten herrialdeetan salbuespenaz eman daitezke, baldin eta baldintza zehatzak betetzen badituzte, bai eta herrialde periferikosteetan edo populazio dentsitate gutxikoetan ere, garraioa koste gehigarriak konpentsatzera bideratuko liratekeenean. Bestalde, Batzordea aztertzen ari den kasuan, ez laguntzak ez herrialdeak ezin izango dira halako hipotesietan babestu. Era berean, hiru Probintziak ezin dira aipaturiko indargabetzean babestu. Honi dagokionez, baliagarria da hurrengo gogoratzea, hau da, bere 2000ko apirilaren 11ko erabakiaren bidez, zeinaren bitartez 2000-2006 epealdirako

herrialde-helburua luketen laguntzen espainiar mapa onetsi baitzuen, Batzordeak uste izan zuen halako hiru Probintziak ez zirela herrialdeak non, **Europar Erkidegoko Hitzarmenaren 87. artikuluko 3. paragrafoa a) letrako** indargabetzearen arabera, estatu-laguntzak Merkatu Batuarekin bateragarriak uste izan baitzitezkeen, beren bizitza maila ez zelako anormalki apala ez eta beren azpienplegua larria ere. Aldiz, uste izan zen, hiru Probintziak herrialdeak direla, non estatu-laguntzak Merkatu Batuarekin bateragarriak izan bailitezkeen, **Europar Erkidegoko Hitzarmenaren 87. artikuluko 3. paragrafoa c) letrako** indargabetzearen arabera. Ondorio gisa, Batzordearen ustetan, herrialde-helburua duten estatu-laguntzei buruzko arauen argitara, aztertzen ari ziren zerga-laguntzen bateragarritasuna zalantzarria zen.

Azkenik, Batzordeak bere *ondorioak* adierazten ditu. Zentzu honetan, *lehenik*, **Europar Erkidegoko Hitzarmenaren 87. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan** ezarritako indargabetzearen arabera, aipaturiko zerga-laguntzek Merkatu Batuarekiko luketen bateragarritasunari buruz zalantzak sortzen dira zenbait arrazoiengatik. Hauek, besteak beste, hurrengoak dira, hau da, 2. *paragrafoa a) letran* ezarritakoaren arabera, ezin dira gizarte-izaerazko laguntza gisa hartu; *paragrafo bereko b) letraren* arabera, halako laguntzak ez daude natura-hondamenek edo aparteko izaerazko beste gertaera batzuk sorturiko galerak konpontzera bideraturik, eta aipaturiko laguntzak ezin dira ere Alemaniako Errepublikako Federaleko zenbait herrialdeentzako *c) letrako* xedapenetan babestu. Bestalde, **Europar Erkidegoko Hitzarmenaren 87. artikuluko 3. paragrafoa** alde zurreratik aipaturiko *a) eta c) letrako* ez bezalako indargabetzei dagokienez, halako zerga-laguntzek ez dute objektutzat europar interes baturako garrantzia duen proiektu baten burutzapenaren bizkortzea edo Estatu kide baten ekonomiaren asaldura larri bati erremedioa ipintzea, *b) letran* ezarritakoaren arabera. Halaber, ezin dira "jarduera zehatzen garapena erraztera bideraturiko laguntzei" buruzko *c) letrako* beste xedapenak ere eskrimatu, enpresa onuradunen jardueretik berezitasunik ez baitute. Azkenik, hurrengo ahartarazten da, hau da, laguntzak, *3. paragrafoa d) letran* ezarritakoaren arabera, ez daudela kultura eta ondarearen kontserbazioa eragitera bideraturik.

Aurreko kontsidero guztiak kontuan harturik, Batzordeak, Elkarten gaineko Zergaren salbuespen formapeko zerga-laguntzen hiru

9. Europar Erkidegoetako Egunkari Ofiziala (EEEO), C-74 zk., 1998ko martxoaren 10ekoa.

SAGASTI, J. J. Merkataldegi handien eraentza eta Europar Batasunaren ustea euskal zerga-laguntzei buruz. *Eleria*, 8, 2001, 127-134

erregimenen kontrako **Europar Erkidegoko Hitzarmenaren 88. artikuluko 2. paragrafoan** aurreikusitako erabideari hasiera ematea erabaki du. Honen ondorioz, eta **657/1999 Erregelamenduko (EB)¹⁰ 14. artikuluan** oinarrituz, onuradunari legez kontra emandako laguntza ororen bihurpena eskatu ahal izango zaio. Hala eta guztiz ere, Batzordeak, alde batetik, bere erabakiaren muga nabariarazten du azkenean; honela, erabakia, bertan era esplizituan aztertzen diren zerga-neurriei baino ez dagokie; beraz, ez da probintzia bakoitzeko zerga-erregimen zehatzean dauden gainerako neurriez aritzen. Bestalde, Batzordeak, laguntzak izan daitezkeen neurriak, bai orokorrean bai enpresa zehatz bati aplikatzerakoan, aztertzeko aukera berarentzat erreserbatu edo gordetzen du.

10. EB: Europar Batasuna.

SAGASTI, J. J. Merkataldegi handien eraentza eta Europar Batasunaren ustea euskal zerga-laguntzei buruz. *Eleria*. 8, 2001, 127-134